

## Herri honen nekaldia

*Deia*, 1991-09-22.

Luzea da gure herriaren gurutz bidea. Aintzinaoengandik heldu zaigu Euskal Herriak askatasunaren alde egin dituen borroken berri, batzu geure artekoak, eta, beraz, beste norbaiten bentajan. Loiolako Sainduaren V. mendealdia dela eta aipatu dizkigute garai hartako bandokeriak eta gorrotoak; bi karlistadatako borroka zibilen berriak eta nigarrak gure aitonengandik zuzenean jasoak ditugu, eta azken gerra zibileko basakeriak begi-belarrietatik oraindik itzali ez zaizkigunean, eta pakebidetik askatasunaren argiak gozatuko gaituela espero genuenean, alde batetik gure herriko hilak hoztutzeko denborarik gabe, eta bestetik gure arteko politikagintza traketsak elkarrekiko amore ematearen gutxiengo bat lortzerako saltatzen diren ezinikusi eta gorrotoak begi bietan ditugula, gaideo behar dugu, bakoitzak berekiko eta elkarri begira jarrita, bietara, zertan datzan madarikazio hau, zer egin dugun historian zehar eta zer ari garen egiten geu, geure arteko borroka itsu honetan, begiak goraxeago jaso gabe, elkarri begietara so egin gabe eta bakoitza berean, bere "egi" sakratu eta alderdikeriaz itxia, grinaz lotua, geure "egi borobilak" geure sagrario partikularrean gordeta dauzkagun bitartean.

Non geratu zaigu ahaztuta geure arerioa?

Gure askatasuna ukatu eta mila aldiz hil eta demokraziak tantaka eta gutxi neurritzen ari zaigun jainko-itxia, oraindik geure hizkuntzaren berpizteari tranpak jartzen bizi dena...

Bada, geok jasoko dugu oraintxe herriko aldarera.

Bitartean, esperantza galdu duen herria, engainatua eta nekatua dagoela esango dio geure politikoari, entzuteko denborarik geratzen bazaio.